



GFI Norte-k ezegonkortzen du (IV. zatia)

Kontratuak ezkututzen dizkigu eta ikusi ditugunen artean zenbait ezegonkorrak dira.

GFI Norte-ko ELA sindikatu atala Lan-Ikuskapenaren aurrean salatzen jarraitzen du.

Prekarizazioa edota lan-prekarizazioa, lan-merkatuan eta enplegu, azpienplegu eta langabezien baldintzei dagokienez, langileen, gizarte eta baldintza ekonomikoetan segurtasun eta berme faltan datza, langileei eta euren gizarte eta familiako esparruan eragiten diena.

WIKIPEDIA <http://es.wikipedia.org/wiki/Prekarización>

12garren, 22garren eta 24garren aleetan egin genuen bezala, honetan ere, ezegonkortasuna salatzen darraigu. Azken hilabetetan langile kopurua asko handitu da Euskaltel-en gertatzen ari diren externalizazioei esker. Prozesu hau opakutasun handian murgilduta dago, izan ere:

- Ez dugu langileen zerrenda bat. Eta enpresak ez digu eman nahi. **Lan-Ikuskapenean salatu dugu.**
- Subrogatutako langileen kontratu-kopiak ez dizkigute ematen. Ez dakigu zein lan-baldintzak dituzten eta hau jakin barik oso zaila da urratuak direnean defendatzea. **Lan-Ikuskapenean salatu dugu.**
- Egindako *laguntza* kontratuak ezegonkorrak dira. Bai soldatan eta baita lan-baldintzetan ere. Eranskin askoko *alegaltasuna* aipatu gabe (gure aldizkariaren **22. alean** deskribatuak).

Externalizazio prozesuan izandako irregulartasunak salatzeko ELA-Euskaltel-ek jarritako auzi-eskearen epaiketa datorren Irailaren 16an izango da eta susmatzen dugu horregatik enpresak ez digula eman nahi izandako akordioak. Informazio gehiagorako bizitatu dezakezue <http://ektela.blogspot.com.es/>.

Azkenik, **GFI Norte-ko ELA atala Lan-Ikuskapenean salatu du izandako lan-baldintzen funtsezko aldaketa**, beste batzuen artean, jardunaldi intentsiboa hasi denean. Izan ere, zenbait langilek ikusten dute beren jardunaldi intentsiboa murriztuta/deuseztatu legeak markatzen duen aurrerapenarekin abisua jaso barik eta langileen ordezkariak abisatu gabe.

Ez gaitu iruditzen batere etikoa eta azkarra GFI Norte-ko benetazko motorrari jaramonik ez egitea eta tratatu txarra ematea: Langileak. **Eta batera gezurra esatea** eta "Nazio Batuetako itunaren adierazpena" atxikimendua egin (<https://nosotros.gfi.es> eskuragarri) non honelako gauzak esaten dira:

- "...Gure lankideek beraien familiarentzat, aktibitate sozialentzat eta beste ekimenentzat aisialdia izan dezaten nahi dugu..."
- "...Gure lankideei beraien garapen pertsonal eta profesionalarentzat aukera ugari ingurune laboral suspergarri eta interesgarri bat eskaintzen saiatzen gara..."
- "...Enpresa eta langileen arteko elkarrizketa konstruktiboan sinesten dugu..."
- "...Soldata lehiakorrak eta bidezkoak ordaintzen ditugu, oinarrizko bizi-beharrak estaltzeko argi eta garbi gaintzen dituztenak..."

Bere langileak eta bere akziodunak eta prensa tratatzeko momentuan enpresa honek neurtzeko duen arradaki bikoitzaren frogak argi batean.

GFI Norte-ko laburrak

- CCOO-k eta UGT-k jarritako salaketa, gure hitzarmena gainbeheratu ez zedin saiatzen zena, ez da izan onartuta. Salaketa hau enpresa bakoitzean egin behar da, ELA-ko Lege Zerbitzuek hasieratik aholkatzen zuten moduan. Hortaz, ELA sindikatu atalak jarri zuen salaketaren eboluzioari buruzko informazioa ematen jarraituko dizuegu.
- Zenbaitetan esan dizuegun bezala, gure hitzarmenarekin linbo batean gaude (ikusi aldizkariaren 23. Alea). Baina GFI Norte-ko ELA sindikatu atalak oso adi jarraitzen du soldata-orriari, aldaketaren bat gertatuko balitz.
- 2013ko Azaroaren 14ko BAOren arabera arau batzuk jarri ziren Aldundiarentzat (gure kasuan Lantik) lan egiten zuten enpresek bete behar zituztenak eta betetzen ez baziren zigorrak jarriko ziren. ELA-ko Lege Zerbitzuak egoera aztertzen ari dira Aldundiaren aurrean salaketa bat jartzeari begira.
- David Hernández Urcelay GFI Norte-ko ELA sindikatu ataleko gure kide berria da, Verónica Durán ordezkatzuz.

FACEBOOK-en argitaratzen duguna

2014/9/12	Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak bukatu dira.
2014/9/12	Mutualitateen legea. Udan ere murrizketak egiten dira.
2014/8/05	Atos-ek Bull erosten du. Atos-en ERE bat.
2014/7/28	Bilbomatica-ko maula. Existitzen ez ziren "I+D+i"-ko proiektuentzako diru-laguntzak.
2014/7/21	ELA sindikatuak: "Sindikatuak eta patronalak heziketa emateagatik ez lukete dirurik jaso behar".
2014/7/11	EiTB-en kontrako sententzia bere web serbitzuan enpleguak ilegalki lagatzeagatik.
2014/7/09	Nazio Batuetako itunaren adierazpena GFI-ko atxikimendua.
2014/6/26	2014. GFI-ko Kick-off-a. RRHH-ko politika: Junior profileko kontratazioan inbertitzea.
2014/6/25	Kaleratze kalte-ordainketek PFEZa ordainduko dute.